

Irun, 2023ko abenduak 15

FUNDACIÓN GUITRANS FUNDAZIOA

Erregai alternatiboak eta digitalizazioa, ez da etorkizuna, orainaldia da

GUITRANS Fundazioak jardunaldi interesgarri bat egin du gaur, abenduak 15, Irungo Ficoba erakustazokan, “Erregai alternatiboak eta digitalizazioa, ez da etorkizuna, orainaldia da” izenburupean. Bi gai horiek, bai emisioak murrizteari dagokionez ezarritako helburuak lortzea ahalbidetuko duten erregaietarako trantsizioak, bai digitalizazioak, paradigma aldatzea ekarriko dute, berez, salgaien errepideko garraioaren sektorearentzat.

Trantsizio bidezkoa, segurua eta posiblea

Izaskun Bilbao, Eurodiputatu eta EBko Garraio Batzordeko kideak, eta Ignacio Cepedak, GUITRANS Fundazioaren Patronatuko lehendakariak, jardunaldia inauguratu dute, eta nabarmendu dute eredu energetikoaren trantsizioa ekoizpen-sistamarako ezinbestekoa den sektorearekin batera egin behar dela, modu zuzen, seguru eta posible batean. Ignacio Cepedak balioa eman dio Gipuzkoako enpresen ereduari; besteak beste, Echemar garraio enpresari, elektrifikazioaren aldeko apustua egin baitu, edo Transportes Vicuñari, urteak baitaramatza gas naturala erabiltzen, ahalegin handia eginez.

Erregai alternatiboetarako buruzko lehen mahai-inguruan, Transporte XXIko zuzendaria den Alfonso Aldayk, moderatzaile lanetan, eztabaida interesgarria gidatu du, honako mahaiakideekin: Javier López Aranguren (Cepsa), Aitor Arzuaga (Repsol), Alberto Merino (Gazpi Mercedes), Mónica Díaz (Euskal Erakundea) eta Izaskun Bilbao. Guztiak bat etorri dira erregai berriak erabiltzeko behar diren teknologiak mugaraino garatzearekin, pixkanaka fosilak alde batera utzita, baina haien erabilera orokortzeko beharrezkoak diren azpiegiturak bermatzeari garrantzia emanaz. Javier Lopezek, zentzu errealistarekin, adierazi du gaur egun deskarbonizazioa bioerregaietan oinarritzen dela eta epe luzeko ikuspegia hidrogenoan eta elektrifikazioan oinarrituko dela. Digitalizatzeko eta deskarbonizatzeko, Izaskun Bilbaoren iritziz, EBko merkantzien garraioaren %70 bere gain hartzen duen sektorearen ezagutza behar da.

Echemar,% 100 elektrikoa den traktorea

Ficobaren inguruetan, bertaratutakoek ikusi ahal izan dute Mercedes markako %100 elektrikoa den lehen traktorea, Echemar garraio-enpresaren flotaren parte, iraunkortasunarekiko konpromiso sendoa erakutsiz.

“Duintzeko digitalizazioa, garraioak batzen gaitu”

Lema horrekin hasi du aurkezpena, Grupo Igarleko eta Euskadiko Logistika Klusterreko Zuzendaritza Batzordeko kidea den Fran Manzanok. Azaldu duenez, lege berriak betetzeko sektoreari mesede egin eta eraldatuko duen digitalizazioa bultzatu behar da, “balio-kateen digitalizazioan paradigma-aldaketa baten aurrean gaudelarik, lehiakorrago eta baliotsuago bihurtuz, eta hori lortzeko, eragile eta faktore guztien

Irun, 2023ko abenduak 15

inplikazioa behar da, baita gidariaren lanbidea duindu beharra ere, maila ahulena baita”. Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterrak 'Truck Friendly Movement' ekimenarekin bat egiteko agertu duen interesaren berri eman du, sektorearen aurrerapenean lagunduko duten ekimen komunen bidez.

Igarle Taldeko Aurelio Legasarekin hurrengo mahai-inguruan, moderatzaile gisa, Espainiako Kargatzaileen Elkarteko Nuria Lacaci, Ulmako Eñaut Sarriegi, Marcotrango David Raposo, Vicuña Garraioko Txomin Vicuña eta Carlos Alfaro Transportlive-koa izan dira. Parte-hartzaileek eraldaketa digitalaren joerak aztertu dituzte, eta azpimarratu dute e-CMR pizgarria izango dela, baina argitu behar da merkatu guztiaren lan egiteko baliagarria izango den. Oraingoz, digitalizazioak kostu handiagoa dakarkie enpresei langile eta inbertsionetan, baina uste dute etorkizunak prozesu asko bizkortu eta argituko dituela.

Luis Pedro Marco de la Peña Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura eta Garraio sailburuordeak eta Cristina Laborda Irungo alkate izendatu berriak itxi dute ekitaldia.